

ERABAKIA, 1993ko abuztuaren 18koa, Osasun Sailburuordearena, Juan Carlos Larrañaga Bilbao jaunak eskatuta, horzdurako kontsultategi pribatu bat zabaldu eta ihardunean jartzeko administrazio eta osasun mailako baimena emateko dena. 8487

ERABAKIA, 1993ko abuztuaren 18koa, Osasun Sailburuordearena, Silvia Zuluaga Goikoetxea andreak eskatuta, medikuntza orokorreko kontsultategi pribatu bat zabaldu eta ihardunean jartzeko administrazio eta osasun mailako baimena emateko dena. 8488

Iragarpenak

Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

OSASUN SAILA (Osakidetza)

LEHIAKETA PUBLIKOA, «Oinarrizko lau Sorospen Zentrotan, aurretiatzeko deia kudatzeko behar den hardware-aren erosketak» kontratatzeko dena. 8489

Xedapen Orokorrak

HERRIZAINGO SAILA

3008

250/1993 DEKRETUA, abuztuaren 3koa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan aplikatu daitezkeen Hauteskunde-Arauek garatzen dituenak.

Eusko Legebiltzarra Autonomi Estatutuko 10.3 atalean Euskal Autonomi Elkarteari ematen zaion eskuduntzetariko batez baliatu zen Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legea onartu zuenean. Eusko Jaurlaritzak garatu egin zuen lege hori arau-bidez eta Eusko Legebiltzarrerako 1990ko urriaren 28an egin ziren azken hauteskunderako arauteria baliagarria izan zen.

Geroago, «Hauteskundearen Erregimen Orokorra» aldatzeari buruzko 8/1991 Lege Organikoa onartu zuten Gorte Nagusiek 1991ko martxoaren 13an. Lege horretako xedapen batzuk, orokorrak direnez, Autonomi Elkarteetako Legebiltzarretarako hauteskunde gutzietan derrigor aplikatu beharrekoak dira eta, ondorioz, lehen aipatu den 5/1990 Euskal Legean artikulatzen diren xedapen batzuk bere gain hartzen ditu eta, gainera, hauteskunderi buruzko euskal lege horretan ezar-

RESOLUCION de 18 de agosto de 1993, del Viceconsejero de Sanidad, por la que se concede autorización administrativo-sanitaria para la apertura y funcionamiento de un consultorio dental privado, solicitada por D. Juan Carlos Larrañaga Bilbao. 8487

RESOLUCION de 18 de agosto de 1993, del Viceconsejero de Sanidad, por la que se concede autorización administrativo-sanitaria para la apertura y funcionamiento de un consultorio privado de Medicina General, solicitada por Dña. Silvia Zuluaga Goikoetxea. 8488

Anuncios

Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

DEPARTAMENTO DE SANIDAD (Servicio Vasco de Salud)

CONCURSO PUBLICO para la contratación de «Adquisición de hardware necesario para la gestión de cita previa en cuatro Centros de Atención Primaria». 8489

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

3008

DECRETO 250/1993, de 3 de agosto, sobre desarrollo de la Normativa Electoral aplicable a las Elecciones al Parlamento Vasco.

La Comunidad Autónoma de Euskadi ejerció la competencia que le atribuye el artículo 10.3 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, al aprobarse por el Parlamento Vasco la Ley 5/1990, de 15 de junio, de «Elecciones al Parlamento Vasco», que desarrollada reglamentariamente por el Gobierno Vasco, sirvió de sustento normativo válido para la celebración de las últimas elecciones al Parlamento Vasco del 28 de octubre de 1990.

Con posterioridad, con fecha de 13 de marzo de 1991, las Cortes Generales aprobaron la Ley Orgánica 8/1991, de Reforma del «Régimen Electoral General», algunos de cuyos preceptos de carácter básico y por tanto de aplicación obligatoria para todas las elecciones a las Asambleas Legislativas de las Comunidades Autónomas, inciden de un lado, desplazando cuestiones normativas articuladas por la antes citada Ley Vasca 5/1990 y de otro lado, regulando nuevas materias que

tzen ez direnak arautzen dira bertan. Horiek horrela, bi legeetako xedapenek arautuko dituzte Lege Biltzarrerako hurrengo hauteskundeak; ondorioz, beharrezkoa da, hainbat alde argitzea.

Hauteskunde arauak aplikatzerakoan erizpide homogeneoak ezartzeak, arauak alferrik ez ugaritze eta sailen arteko koordinakuntza mailako arazoiek, aholkagarri bilakatzen dute, hauteskunde prozesua arautzeari batasuna eta finkotasuna emango dizkioten arauak finkatzea. Eta egiteko hori, indarrean dauden eta lege maila duten arauak behar den bezala garatuz bete behar da.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei aplikatzen diren hauteskunde-arauen alde jakin batzuk garatzen dira dekretu honen bidez, adibidez, hauteskunde-administrazioa, hauteskunde-prozedura eta hauteskundeetako gastu eta dirulaguntzak.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 18 c) atalean ezartzen denaren arabera, Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak onartutako legeak araubidez garatzeko eskuduntza duenez, Euskal Autonomi Elkarteke hauteskunde-prozesuko alde zehatz batzuk garatzen dira dekretu honen bidez.

Ondorioz, Herrizaingo Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko abuztuaren 3an egin zuen bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. atala.- Aplikazio eremua.

Dekretu honetan jasotzen diren arauak, Eusko Legebiltzarrerako egin daitezten hauteskunde-deialdietan izango dira aplikagarri.

2. atala.- Euskal Autonomi Elkarteke Hauteskunde Batzordearen eskuduntzak.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 5/1990 Legeko 13. eta 29. ataletan ezartzen denaren arabera, honako hauek egin ahal izango ditu Euskal Autonomi Elkarteke Hauteskunde Batzordeak:

a) Ofizioz edo interesdunak ahal eskatuta, Lurralde Historikoko Hauteskunde-Batzordeen erabakiak indargabetzea, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 5/1990 Legeko 134. atalean ezartzen diren epeen barruan eta hauteskundeetarako arauari buruz Euskal Autonomi Elkarteke Hauteskunde-Batzordeak egin dezan interpretazioaren kontrakoak izan daitezenean.

b) Hauteskunde arauak aplikatzeari dagozkionetan Lurralde Historikoko Hauteskunde-Batzordeek dituzten interpretazio-erizpideak bateratzea.

c) Hauteskunde Mahaiak eta Lurralde Historikoko Hauteskunde-Batzordeak eratze, boto-kontakteta eta sesio-akten ereduak onartzea Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren proposamenez eta bai hautaketaren gai izan diren hautagaien aldarrikapen-akta ere. Eredu horiek, akten kopiak berehalaxe egiteko bide eman behar dute, nahiz autokopiagarriak diren agiri bidez, nahiz antzeko beste prozedura batzuek baliatuz. Eredu horiek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, onarpena jaso ondoren.

d) Hauteskunde Mahaietako kideentzako argibide-manuala gainbegiratzea.

no se preven en la referida legislación electoral autonómica. Por ello, las próximas elecciones al Parlamento Vasco habrán de regirse por preceptos de ambas legislaciones, lo que hace preciso su aclaración.

El establecimiento de criterios homogéneos en la aplicación de las normas electorales, razones de economía normativa y de coordinación interdepartamental, hacen aconsejable establecer un marco reglamentario que confiera unidad y fijeza a la regulación del proceso electoral, mediante el correcto desarrollo del vigente entramado normativo legal.

El presente Decreto desarrolla determinados aspectos de la normativa electoral aplicable en las Elecciones al Parlamento Vasco, referentes a la administración electoral, el procedimiento electoral y los gastos y subvenciones electorales.

Haciendo uso de la facultad que compete al Gobierno Vasco, para el desarrollo reglamentario de las leyes emanadas del Parlamento Vasco, según lo dispuesto en el artículo 18 c) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre «Ley de Gobierno», el presente Decreto desarrolla aspectos concretos del proceso electoral autonómico.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su reunión de 3 de agosto de 1993,

DISPONGO:

Artículo 1.- Ambito de aplicación.

Las normas contenidas en el presente Decreto, serán de aplicación en las elecciones que se convoquen al Parlamento Vasco.

Artículo 2.- Competencias de la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma.

De conformidad con lo señalado en los artículos 13 y 29 de la Ley 5/1990, de Elecciones al Parlamento Vasco, la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma podrá:

a) Revocar de oficio en cualquier tiempo o, a instancia de parte interesada dentro de los plazos previstos en el artículo 134 de la Ley 5/1990, de elecciones al Parlamento Vasco, las decisiones de las Juntas Electorales de Territorio Histórico, cuando se opongán a la interpretación de la normativa electoral realizada por la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma.

b) Unificar los criterios interpretativos de las Juntas Electorales de Territorio Histórico en la aplicación de la normativa electoral.

c) Aprobar, a propuesta del Departamento de Interior del Gobierno Vasco, los modelos de actas de constitución, de escrutinio y de sesión, tanto de las Mesas como de las Juntas Electorales de Territorio Histórico, así como el acta de proclamación de electos. Tales modelos deberán permitir la expedición instantánea de copias de las actas, mediante documentos autocopiativos u otros procedimientos análogos. Dichos modelos una vez aprobados serán publicados en el Boletín Oficial del País Vasco.

d) Supervisar el manual de instrucciones para los miembros de las Mesas electorales.

3. *atala.*— Boto kontaketa orokorrean egon daitezkeen akatsak zuzentzea.

Horretan agintea izan dezan Lurralde Historikoko Hauteskunde-Batzordeak, hauteskunde-mahaien sesio-aktetan edo, horiek ezean, aktei buruzko egiaztagirietan egon daitezkeen akats materialak edo ekintzazkoak eta aritmetikoak zuzendu ahal izango ditu boto-kontaketako ekintza orokorrean bertan.

4. *atala.*— Euskal Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordearen aurrean, boto-kontaketa orokorreko erabakien aurka egiteko erabili behar den prozedura.

1.— Boto kontaketa orokorraren aurkako reklamazio eta protestei Lurralde Historikoko Hauteskunde-Batzordeak eman diezazkien ebazpenen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtoei Euskal Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeak ebazpena eman diezaien arte, ez da egingo hautaketaren gai izan diren izangaien proklamazioa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 5/1990 Legeko 134. atalean ezartzen denaren arabera.

2.— Euskal Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeak errekurtoei ebazpena eman ondoren, honek, Lurralde Historikoko Hauteskunde-Batzordeetara bidali beharko ditu erabakiak, batzorde hauek, hautatuak izan diren euskal parlamentariak proklamatu ditzaten.

5. *atala.*— Hauteskunde gastuak.

Alderdi politikoek, federazioek, koalizioek edo agrupazioek, botaketarako kartazalak eta papeletak, propaganda eta hauteskunde-publizitatea hautesleei bidaltzea, hauteskunde-gastutzat joko da Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legeko 146. atalean ezartzen denaren arabera. Gastuen mugei buruz lege horretako 147. atalean ezartzen dena bete beharko da.

6. *atala.*— Zein epealdiren barruan egindako gastuak joko diren hauteskunde gastutzat.

1.— Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legeko 146. atalean ezartzen denaren arabera, honako hauek joko dira hauteskunde-gastutzat: hauteskundeetarako deialdia egin dadin egunetik hasi eta botaketa egunera arte alderdi politikoek egin ditzatenak hain zuzen.

2.— Hauteskundearen Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoko 130. atalean ezartzen denaren arabera, honako hauek ere hauteskunde-gastutzat hartuko dira: Botaketa egunetik hautatuen proklamazioa egin dadin egunera arte alderdi politikoek egin ditzatenak hain zuzen.

7. *atala.*— Hauteskundeetarako dirulaguntzen bigarren diru-aurrerakina.

Ekonomi eta Ogasun Sailak, Euskal Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeari hauteskunde-kontabilitatea aurkezteko epea amaitu eta 15 eguneko epearen barruan, hauteskundeetan lortutako emaitzen arabera hautagai-zerrendari dagokion diru-aurrerakinaren 100eko 45a ordainduko die administrari orokorrei. Emaitzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren egingo da hori.

Artículo 3.— Subsanación de determinados errores en el escrutinio general.

Durante el acto del escrutinio general, la Junta Electoral de Territorio Histórico competente, podrá subsanar los meros errores materiales o de hecho y los aritméticos que así obrasen en las Actas de Sesiones de las Mesas electorales o en su defecto en los certificados de dichas Actas.

Artículo 4.— Procedimiento ante la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma contra las resoluciones del escrutinio general.

1.— Según lo previsto en el artículo 134 de la Ley 5/1990, de Elecciones al Parlamento Vasco, la proclamación de electos no será efectuada hasta que sean resueltos por la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma los recursos que pudieran presentarse contra las resoluciones de las Juntas Electorales de Territorio Histórico sobre las reclamaciones y protestas referentes al escrutinio general.

2.— Una vez resueltos los recursos por la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma, ésta dará traslado de dicha resolución a las Juntas Electorales de Territorio Histórico correspondientes, para que procedan a la proclamación de los parlamentarios vascos electos.

Artículo 5.— Gastos Electorales.

El envío directo y personal de los partidos políticos, federaciones, coaliciones o agrupaciones, a los electores de sobres y papeletas de votación o de propaganda y publicidad electoral, se considerará gasto electoral, de acuerdo con lo señalado en el artículo 146 de la Ley 5/1990, de elecciones al Parlamento Vasco y sujeto a lo dispuesto en el artículo 147 de la citada Ley, sobre el límite de gastos.

Artículo 6.— Plazo para considerar los gastos electorales.

1.— De conformidad con lo señalado en el artículo 146 de la Ley 5/1990, de Elecciones al Parlamento Vasco, se consideran gastos electorales los realizados por las fuerzas políticas, desde el día de la convocatoria hasta el de la celebración de las elecciones.

2.— Según lo previsto en el artículo 130 de la vigente Ley Orgánica del Régimen Electoral General, también tendrán la consideración de gastos electorales los producidos por las fuerzas políticas, en el período comprendido entre el día de votación y la proclamación de electos.

Artículo 7.— Segundo anticipo de las subvenciones electorales.

En el plazo de 15 días a contar desde la finalización del período para la presentación de la contabilidad electoral ante la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma, el Departamento de Economía y Hacienda entregará a los administradores generales en calidad de adelanto el 45 por 100 del importe de las subvenciones que correspondan a las candidaturas en función de los resultados electorales por ellas obtenidas, publicados en el Boletín Oficial del País Vasco.

Ordainketa honek eta ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 144.1 atalean aipatzen denak, biak batera, ez dute gaudituko oraingo hauteskunde-prozesuan alderdi politiko bakoitzari dagokion dirulaguntza.

Administrari orokorrek Ekonomi eta Ogasun Sailari egin beharko diote aurrerakinaren eskabidea eta alderdi politiko, federazio, koalizio edo hauteskunde-agrupazio bakoitzari prozesua amaitu ondoren dagokion hauteskunde-dirulaguntzaren zenbatekoari kenduko zaio diru-zenbateko hori.

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

Lehenengoa.— Erabateko dedikazio erregimena, bokal ez-judizialak izendatzeko titulu profesionalak eta Lurralde Historikoko eta Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeen eskuduntzak.

Lurralde Historikoko Hauteskunde-Batzordeetako Lehendakaria erabat dedikatzeko erregimena, Lurralde Historikoko eta Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeetako bokal ez-judizialak izendatzeko eskatu beharreko titulu profesionalak eta hauen eskuduntzak, Hauteskundearen Erregimen Orokorrari buruz indarrean dauden legeetan finkatzen direnak izango dira.

Bigarrena.— Hauteskunderi buruzko kontabilitatea.

Hauteskundeetan parte hartu duten hautagai-zerrenden kontabilitatea, indarrean dagoen eta Estatuaren Kontabilitate Plan Orokorrean jasotzen diren printzipio orokorrei atxikiko zaie beti.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Dekretua arauz garatzeko habilitazioa.

Hauteskunde prozesuan parte hartzeko eskubidea duten Eusko Jaurlaritzako Sailburuei esku ematen zaie, dekretu honetan ezartzen dena betetzeko, gauzatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren arauak emateko.

Bigarrena.— Indargabetzea eta dekretu hau indarrean sartzea.

Dekretu honetan ezartzen denaren aurkakoak izan daitezkeen maila berdineko edo beheagoko xedapenak indargabetuta gelditzen dira. Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1993ko abuztuak 3.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Herrizaingo Sailburua,
JUAN MARIA ATUTXA MENDIOLA.

Dicho adelanto, sumado, en su caso, al contemplado en el artículo 144.1 de la Ley 5/1990, de 15 de junio no podrá exceder de la subvención que corresponda a cada entidad política en el actual proceso electoral.

El adelanto deberá solicitarse ante el Departamento de Economía y Hacienda por los respectivos administradores generales y se descontará del importe de la subvención electoral que finalmente haya correspondido a cada partido político, federación, coalición o agrupación electoral.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.— Régimen de dedicación exclusiva, titulaciones profesionales para el nombramiento de los vocales no judiciales, y competencias de las Juntas Electorales de Territorio Histórico y de Zona.

El régimen de dedicación exclusiva del Presidente de las Juntas Electorales de Territorio Histórico, las titulaciones profesionales exigidas para el nombramiento de los vocales no judiciales de las Juntas Electorales de Territorio Histórico y de Zona, así como sus competencias, será el previsto para las Juntas Electorales Provinciales y de Zona en la vigente legislación sobre Régimen Electoral General.

Segunda.— Contabilidad electoral.

La contabilidad electoral de las candidaturas presentadas a las elecciones, se ajustará en todo caso, a los principios generales contenidos en el vigente Plan General de Contabilidad del Estado.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Habilitación para el desarrollo reglamentario del Decreto.

Se facultan a los Consejeros de los Departamentos del Gobierno Vasco implicados en el proceso electoral, para dictar cuantas normas reglamentarias sean precisas para el cumplimiento, ejecución y desarrollo de lo dispuesto en el presente Decreto.

Segunda.— Derogatoria y de entrada en vigor del Decreto.

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en el presente Decreto, que entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 3 de agosto de 1993.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Interior,
JUAN MARIA ATUTXA MENDIOLA.